

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2021-01-26(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

5.- BERMEOKO UDALEKO BERDINTASUN PLANA EXEKUTATU ETA GARATZEKO ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

Bermeoko Udaleko berdintasun plana exekutatu eta garatzeko zerbitzu kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urriaren 27an, erabaki du berdintasun plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu kontratuaren espedientea onartzea eta publizitate gabeko prozedura negoziatuari hasiera ematea.

Bigarrena: 2020ko azaroaren 2ko dataz, gonbidapenak bidali dira hurrengo enpresei: Elhuyar-Zubize, S.L.U, LKS, S.Coop, Prospektiker, S.A, Gisma Asesoramiento, S.L eta Gehilan 2000, S.L.

Hirugarrena: Epe barruan, enpresak hauek aurkeztu dituzte proposamenak: Gisma Asesoramiento, S.L eta Gehilan 2000, S.L.

Laugarrena: Kontratuaren arduradunak proposamenen artxibo elektronikoak zabaldu ditu, eta hiru eguneko epea eman zaie bi lizitatzaillei dokumentazioa zuzentzeko.

Bosgarrena: Emandako epe barruan, bi enpresek dokumentazio jakina aurkeztu dute.

Seigarrena: Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, 2020ko abenduaren 2ko 2841 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Gisma Asesoramiento S.L enpresa lizitazio-prozesutik kanpo uztea erabaki da, ez baitu egiaztatu onartua izateko behar diren baldintzak betetzen dituela, eta horrekin batera negoziazio prozedurari hasiera ematea akordatu da.

Zazpigarrena: 2020ko abenduaren 2an, proposamen tekniko eta ekonomikoa aztertzearen akta egin du kontratuaren arduradunak, emaitza honekin:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50005C3A400G6E1Q6B3E6N3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 27/01/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/01/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/01/2021
16:54:16

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0007
Data: 15/09/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50005C3A400G6E1Q6B3E6N3



PREZIO Aren atala (BEZa kanpo)	Zerbitzua garatzeko eskaintako prestasunaren atala	Lan metodologiaren kalitatearen atala
24.700,00 €	Prestasun ez osoa, 21 ordu asteko 3 egunetan banatuta	Bermeoko Udaleko II. Berdintasun Planaren atalak adierazten dituen helburuak era orokorrean azalduta daude

Zortzigarrena: Aurrekoaren ondorioz, 2020ko abenduaren 9an, negoziatorako errekerimendua bidali da Euskadiko kontratazio publikoko plataformaren bidez, eta 3 eguneko epea eman da eskaintza hobetzeko.

Bederatzigarrena: Emandako 3 eguneko epea igarota, lizitatzailleak ez du beste proposamenik aurkeztu. Hori dela eta, ulertzen da lehen eskaintzan mantentzen dela.

Hamargarrena: 2020ko abenduaren 15ean, balio-judizio bidezko irizpideen balorazio-txostena eman da. Hona hemen puntuazioa:

Enpresa	Lan metodologiaren kalitatea	Planaren betetze maila eta ekintzen lortzapen maila	GUZTIRA
Gehilan 2000, S.L	18	7	25

Hamaikagarrena: Kontratuaren arduradunak esleipen-irizpideak baloratzeko akta egin du, 2020ko abenduaren 15ekoa. Hurrengoa da atal guztien puntuazioa:

Lizitatzaila	Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak	Automatikoki kuantifikatu ahal diren irizpideak	Guztira
Gehilan 2000, S.L	25	55	80

Halaber, kontratua Gehilan 2000 S.L-ri esleitzea proposatzen da, onartutako lizitatzaille bakarra baita eta puntuaziorik onena lortu duena.

Hamabigarrena: 2020ko abenduaren 18an, dokumentazioa eta bermea eskatu zitzaizkion Gehilan enpresari. Enpresa horrek pleguak eskatzen duen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50005C3A400G6E1Q6B3E6N3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 27/01/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/01/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/01/2021
16:54:16

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0007
Data: 15/09/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50005C3A400G6E1Q6B3E6N3



dokumentazioa aurkeztu du eta baita 1.235,00 euroko behin betiko bermea.

Argudioak

Lehenengoa: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 151. artikulua arabera esleipenaren ebazpena arrazoitua izan behar da eta lizitatzaileri jakinaraziko zaie. Horretaz gain, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

Bigarrena: Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153. artikulua dio behin esleipena eginda, kontratua formalizatu beharko dela 15 egun balioduneko epean.

Epe horretan kontratua sinatuko ez balitz, esleipendunak kontratuari uko egin diola ulertuko da.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritz, eskumena alkatearena da, baina 2019ko ekainaren 21eko 1479 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Erabakiaren edukia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: Gisma Asesoramiento, S.L. merkataritza-sozietatea lizitazio-prozesutik kanpo uztea, ez baitu egiaztatu prozeduran onartua izateko behar diren baldintzak betetzen dituela, ebazpen honen xedapen zatian azaldutako arrazoiengatik.

BIGARRENA: Gehilan 2000, S.L enpresari esleitzea Bermeoko Udaleko berdintasun plana exekutatu eta garatzeko zerbitzu kontratua 24.700,00 eurotan BEZa kanpo (BEZari dagokion zenbatekoa: 5.187,00 euro; GUZTIRA: 29.887,00 euro), urtebeterako eta esleipendunak aurkeztutako proposamenarekin bat.

HIRUGARRENA: Kontratu hau gauzatzeko behar den gastua xedatzea, aurrekontuko 00800.92014-2279965 kontu-sailaren kargura.

LAUGARRENA: Gehilan 2000, S.L enpresari eskatzea 15 egun balioduneko epean kontratua formalizatzea, ebazpen hau jakinarazten denetik kontaktzen hasita.

Aipatutako 15 egun balioduneko epean kontratua sinatuko ez balitz, kontratuari uko egin zaiola ulertuko da. Kasu horretan, bestelako enpresarik ez dagoenez 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan xedatutako errekerimendua egiteko, kontratazioa hutsik deklaratzeko proposamena egingo litzateke.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50005C3A400G6E1Q6B3E6N3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 27/01/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/01/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/01/2021
16:54:16

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0007
Data: 15/09/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50005C3A400G6E1Q6B3E6N3



BOSGARRENA: Ebazpen hau kontratatzailearen profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

SEIGARRENA: Enpresa lizitzaileei ebazpen hau jakinaraztea, erabaki honen aurrean dituzten errekursoak adieraziz.

ZAZPIGARRENA: Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Sailei ebazpen honen berri ematea, jakinaren gainean egon daitezten behar diren ondorioetarako.

ZORTZIGARRENA: Kontratua formalizatu ondoren, kontratugilearen profilean argitaratzea eta REVASCO Neri jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 346.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

BEDERATZIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua araberan), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50005C3A400G6E1Q6B3E6N3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 27/01/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/01/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/01/2021
16:54:16

EXPEDIENTE ::

2020KON_NE_G0007

Fecha: 15/09/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E50005C3A400G6E1Q6B3E6N3

